

## Hezkuntzako laugarren mailako 26 ikaslek egingo dituzte aurten praktikak Latinoamerikan

2016/10/10

Urtero bezala, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Hezkuntza graduko 4. mailako ikasleek aukera izango dute praktikak egiteko Latinoamerikan. Aurten, guztira, 26 ikasle joango dira praktikak egitera Argentina, Txile, Guatemala, Ekuador, Mexiko, Peru eta Boliviako ikastetxeetara. Ikasleak hiru hilabeterako joango dira atzerrira, urritik abendura.

Praktiketara joan aurretik, zenbait formazio eta hausnarketa saio egiten dituzte ikasleek. Aurten, esaterako, baliatu da fakultatean daudela Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak aditu tituluko atzerriko ikasleak eurekin egoteko eta herrialde desberdinei buruzko esperientziak partekatzeke.



Aurten, Latinoamerikara joango dire ikasleatariko batzuk.